



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Euskararen belaunaldiz
belaunaldiko etena eta jarraipena
Lizarrako ikastolako familien
testuinguruan**

Ainhua Pardina

107-112 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.01.13>

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



Euskararen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena Lizarrako ikastolako familien testuinguruan

Pardina, A.

UPV/EHU

apardina002@ikasle.ehu.eus

Laburpena

Lan honetan Lizarran hiru belaunaldietako euskararen bilakaerari helduko zaio, haurrak ikastolan euskaldundu diren familietan euskararen gaitasun aitortuaren bilakaera ikertuz. Aztertu nahi da euskararen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena nolakoa izan den haurrak ikastolan D ereduan euskaldundutako familia batzuetan. Emaitzetan, besteak beste, lehen bi belaunaldietako euskararen galera prozesuaren aztarnak erakutsiko ditugu. Aldiz, belaunaldi gazteenak erakutsitako euskara gaitasuna Lizarrako hizkuntza biziberritze prozesuaren erakusgarritzat joko da, hor ikastolaren ekarpena nabaria delarik. Azkenik, belaunaldi gazteenak DBHtik unibertsitate garaira arte izandako euskara gaitasunen bilakaera ere erakutsiko da.

Hitz gakoak: D eredu, euskara gaitasuna, belaunaldiz belaunaldiko hizkuntza jarraipena.

Abstract

This work explores the evolution of Basque in the context of Lizarra in three generations, by studying the reported competence of Basque in families where the last generation has been schooled in the local Ikastola. Results show that disruption of home transmission of Basque in the case of the first two generations analyzed. On the contrary, the Basque competence reported by the youngest generation is understood as the result of the linguistic revitalization process that is taking place in Lizarra, where the contribution of the Ikastola is very relevant. Finally, some details will be shown related to the evolution of Basque competence among the youngest generation, namely between the periods of secondary education and university.

Keywords: D model, competence in Basque, intergenerational language maintenance.

1. Sarrera eta motibazioa

XX. mendearen hasieran Lizarrerrian bertako euskara galdu zen Dufurren (2012) esanetan. Hala ere, Paula Kasaresek (2014) bere tesian Iruñerriaren kasuan esaten duen bezala, 1960-1970 hamarkadetan euskararen galera horri buelta eman eta biziberritze zantzuak agertzen hasi ziren; izan ere, euskararen aldeko jarrerak indartu ziren, 1960ko hamarkadako euskararen irakaskuntzari (ikastolen eta gau eskolen bidez) hasiera eman zitzaion eta 1970eko hamarkadan ikastolen gizarte mugimendua sendotu zen.

Hain zuzen ere, Lizarrako Ikastolak 1970eko urriaren 5ean izan zuen lehen ikasturtea baina, euskara irakasten bazen ere, ikasgai gehienak gazteleraz ematen ziren. Hala ere, horrela haurrak ez zirela euskalduntzen ikusita, 1973an lehendabiziko murgiltze ereduak ezarri zuten, (Dufur, 2012). Gainera, 1995ean D eredu publikoa ere ezarri zen Lizarran, hortik aurrera gurasoen esku bi aukera utziaz haurren eskolatzea euskaraz egiteko.

Hezkuntzarekin lotuta, aipatu beharra dago hezkuntzako eredu linguistikoei dagokienez, hainbat aukera daudela. Hain zuzen ere, aztergai izango dugun herria Nafarroako eremu mistoan dago eta, beraz, hezkuntzari dagokionez, A, B, D eta G ereduak daudela; hau da, posible da guztia euskaraz ikastea (gainerako hizkuntzen ikasgaiak salbu), baina baita guzti-guztia gazteleraz ikastea ere (euskara ikasgai bezala izan gabe), Aldasorok (2001) esan bezala.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko berreskurapenari dagokionez, Kasaresen (2014) lanean ikus daitekeen bezala, 1970etik aurrera Iruritan eta Iruñean aztertutako familietan euskara gaitasuna eta erabilera berreskuratzen hasi ziren. Haurrak hasi ziren eskola bidez euskalduntzen eta, gero, honen eraginez, gurasoak eta aitona-amonak ere bai. Bestela esanda, ikastola sortzeak familietan euskara berriro sartzea ekarri zuen.

1980. hamarkadatik aurrera D eredia hedatuz joan da Nafarroan, poliki bada ere, euskararik gabeko G ereduaren matrikulazioaren ehunekoa (%50) gainditu ez duen arren. Hain zuzen ere, D ereduaren matrikulazioa %30a gainditu ezinda dabil (Berria, 2019).

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, esan beharra dago Nafarroako gazteen gehiengoa erdalduna dela (%65,5), nahiz eta egia den euskaldunen kopurua geroz eta handiagoa dela. Gainera, zenbat eta gazteago, euskaldunen ehunekoa orduan eta handiagoa da (Nafarroako Gobernua, 2020).

Erizeren esanetan (2018), Nafarroan euskararen gaitasunaren, erabileraren eta euskararekiko aldeko jarreraren bilakaera ia elkarrenganako paraleloa da, nahiz eta arinki gorako joera izan 1991tik. 2016. urteko datuen arabera, jarrera mesedegarria %33koa da, euskarazko kompetentzia linguistikoa %23koa eta erabilera %15ekoa. Beraz, Erizek (2018) gogorarazten du jarreraren kurba dela altuena eta jarrera mesedegarriek marko sozial bat sortzen dutela non ezagutza eta erabilera areagotu daitezkeen. Hala ere, gaitasunari dagokionez, aipagarria da, euskaldunen ehunekoak Nafarroako eremu guztietan egin duela gora, eta talderik gazteenean (16-24 urte) dagoela euskaldunen ehunekorik handiena, % 20,8 (Kasares, 2014; Nafarroako Gobernua, 2020). Hau, eskolaren eragina da, gaur egungo gazte euskaldun gehienak eskolan euskaldundu baitira.

Euskararen eskurapenarekin jarraituz, etxeko transmisioari dagokionez, 1980ko hamarkadara arte euskara euren lehen hizkuntza gero eta nafar gutxiagorentzat izan arren, ordutik aurrera euskararen familia bidezko transmisioa hazi egin da: Kasaresen esanetan (2014), guraso biak euskaldunak direnen umeen %78k euskara bakarrik jaso du etxean eta % 17k gaztelaniarekin batera (hau da, guztira %95ak). Aldiz, lan berriagoek (Martinez de Luna eta beste, 2016) egoera horretan euskara H1 %83ak jaso duela adierazten dute. Edozein kasutan, bi lanak bat datoz gehiengo handia dela kasu honetan euskarazko etxeko transmisioa. Gainera, azken belaunaldietako transmisioaren hazkunderik adierazgarriena euskaldun berriak diren gurasoen kasuan gertatu da (Sagarduy, 2009 in Martinez de Luna eta beste, 2016).

Gure ikerketa honetako parte hartzaileek gaztelania H1ean eta euskara H2an 5 eta 11 urte bitartean izandako gaitasunen bilakaera ikertu dute ELEBILAB taldeko hainbat lanetan. Emaitez erakutsi dute bi hizkuntzen garapena antzekoa dela 5 eta 11 urte bitartean. Era berean, ikasle horien eta ingurune eta etxe euskaldunetako haurren euskara garapena konparatuta, antzekotasun ugari ikusi da, nahiz eta ezberdintasun batzuk ere badauden, bai euskararen alderdi gramatikal batzuen garapenean eta baita alderdi diskurtsibo batzuen garapenean ere: esate baterako, euskal morfologia gaztelaniazko hitz lexikoei txertatuz hizketa elebiduna erabiltzeko ahalmena agertzen da 5 urterekin eta baita 8rekin eta 11rekin ere; eta denborazko testu antolatzaileen ekoizpena goraka doa adinean aurrera egin ahala (Almgren eta Manterola, 2016; Ezeizabarrena, 2012; Manterola eta Almgren, 2013; Manterola eta beste, 2013). Manterolaren (2019) lanean, berriz, gure ikerketako parte hartzaileek 11 urte zituztenean idatzitako errezetak aztertu dira, idatzizko gaitasunak ikertzeko asmoarekin eta ingurune euskalduneko adin bereko euskara H1dunen gaitasunekin alderatzeko. Besteak beste, errezetan testu generoarekiko adaptazioa, edukien planifikazioa eta testu antolatzaileak aztertu dira. Emaizzen arabera, euskara H1 eta euskara H2 dutenengan garapena antzekoa da.

Gure lan honetan ELEBILAB ikertaldeak euskara gaitasunen garapenaz egindako lanei segida eman nahi zaie, ikerketa horietan haurrak zirela parte hartu zuten eta gaur egun gazteak diren horien euskara gaitasun aitortuak aztertuta.

3. Ikerketaren muina

Atal honetan, ikerketaren helburuak, parte hartzaileak eta metodologia finkatuko dira. Ondoren, azterketaren lehen emaitza batzuk aurkeztuko dira.

3.1. Helburuak

Gorago aipatu bezala, lan honek Lizarran azken hiru belaunaldietako euskararen bilakaerari heldu nahi dio, haurrak ikastolan euskaldundu diren familietako euskara gaitasunaren eraldaketa ikertuz, galdetegi bidezko datu aitortuen bidez. Honela, zehazki, aztertu nahi da euskararen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena nolakoa izan den haurrak ikastolan D ereduan euskaldundutako familia batzuetan.

Hipotesi orokor modura, aurreikuspena da Nafarroan eremu mistoan euskarak izan duen bilakaera historikoa islatuko dela aitona-amonen eta gurasoen belaunaldian. Hau da, aitona-amonak nahiz gurasoen belaunaldien kasuan, haurrak izateko garaian gehienek ez zekitela euskararik, jaiotzez Lizarrakoak direnen kasuan eta, zekiten gutxien ez zietela hurrengo belaunaldiei transmititu, galera prozesuaren katebegi bihurtuz.

Azken belaunaldiari dagokionez, berriz, Lizarrako ikastolaren sorrera eta garapenaren eragina ikustea aurreikusten da. Zehazki, biziberritze prozesuaren katebegan kokatu behar direla esango genuke, etxean euskara ikasi ez arren, euskara ikasi zutelako, ikastolan D ereduari esker, eta euskararen ezagutza mantendu eta erabilera sendotu dutenen kasuan, ikastolatik irteten eta urte batzuetara ere mantendu egingo da kasu askotan.

3.2. Parte hartzaileak

Gorago aurreratu dugun moduan, ELEBILAB taldearen hainbat ikerketatan 5, 8 eta 11 urterekin parte hartu zuten subjektuak nahi dira aztertu, gaur egun unibertsitate graduiko ikasketak egiteko adinean daudela. Lehenago egindako azterlan horietan, parte hartzaileen euskara-gaztelania gaitasunen garapena aztertu zen (Almgren & Manterola, 2016). Nafarroako eremu mistoan dagoen Lizarran jaiotako 20 urte inguruko 16 gazte dira, etxean gaztelaniaz haziak eta euskara D ereduan ikasiak, bizpahiru urtetatik aurrera. Beraz, euskararen hiztun berri gisa har ditzakegu parte hartzaile hauek, Ortega eta besteren (2016) arabera.

3.3 Metodologia

Lan hau ikerketa handiago baten parte da, helburutzat daukana murgilketa ereduan euskaldundutako gazte nafarren euskararen erabilera eta euskararekiko jarrerak aztertzea. Ikerlan zabalaren barruan sartzen da, adibidez, gaztelaniatik euskararako muda linguistikoen ezaugarriak aztertzea (Pardina & Manterola, 2021), euskararen erabilera laguntzen zein mugatzen duten osagaiak ikertuta. Ikerketaren metodologiak osagai kuantitatiboa (galdetegia) eta kualitatiboa (taldekako eta banakako elkarrizketak) dauzka. Lan zehatz honetarako, galdetegi bidezko datuetan jarri da arreta. Guztira 36 galdera dauzka galdetegiak: hizkuntza gaitasunei, erabilerei eta jarrerrei buruzkoak. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, parte hartzaileen familietan aurreko mendeko 40. hamarkada aldetik hasita azken hiru belaunaldietan izan den bilakaera aztertzeko modua ematen du. Azken belaunaldiaren kasuan, zehazki, DBH garaiko eta gaur egungo hizkuntza gaitasunaren berri jakin daiteke galdetegiari esker, ahozko eta idatzizko ulermen zein ekoizpen gaitasunean, gainera. Horrez gain, 2. atalean azaldu den moduan, parte hartzaile berberak 5-8-11 urte bitartean euskara gaitasunean izandako bilakaeraren berri jakin dezakegu ELEBILAB ikertaldean egindako ikerketek esker (Almgren & Manterola, 2016).

3.4 Emaitzak

Lehenengo taulan ikus daitekeen bezala, euskararen gaitasunaren etxeko transmisioari dagokionez, hainbat ibilbide ezberdin aurki daitezke. Honela, "1. ibilbidea" deituko diogu gazte hauen aitona-amonak (edo bietako batek) etxean euskara jaso arren gurasoek eta parte hartzaileek ez dutenean jaso. "2. ibilbidea" izango da hiru belaunaldietako batek ere ez badu euskararik etxean jaso. "3. ibilbidea" deituko diogu nagusien eta gurasoen belaunaldiak euskararik etxean ez jaso arren, hurrengo

belaunaldiek (gazteek) etxean jaso badute eta, azkenik, "4. belaunaldia" izango da hiru belaunaldiek etxean euskararen gaitasuna jaso badute.

1. taula: euskararen gaitasunaren etxeko transmisioa, azken hiru belaunaldiak

BELAUNALDIEN ARTEKO EUSKARAREN TRANSMISIOAREN IBILBIDE MOTAK	GAITASUNAREN TRANSMISIOAREN EHUNEKOA
1. Ibilbidea: Bai - Ez - Ez	%23,1
2. Ibilbidea: Ez - Ez - Ez	%38,4
3. Ibilbidea: Ez - Ez - Bai	%30,8
4. Ibilbidea: Bai - Bai - Bai	%7,7

Taulan ikusten den bezala, portzentajerik altuena hiru belaunaldietako batek ere euskara etxean jaso ez duen ibilbideari dagokio (%38,4). Beste ehuneko handi bat dago non aurreko bi belaunaldiek euskararik etxean jaso ez arren, gazteen belaunaldiak euskara etxean jaso duena (%30,8), nahiz eta hauetako batzuetan guraso bakarraren aldetik eta gaztelerarekin batera jaso duten. Gainera, kontuan hartzekoa da %23,1k nagusien belaunaldiak euskara etxean jaso zutela baina ez zietela hurrengo belaunaldiei transmititu.

Ikergai ditugun gazteen aitona-amonei zehatzago begiratuta, hau da, 40. hamarkada aldeko datuei dagokienez, galdetegietako emaitzek erakusten dute gehiengoak ez zekiela euskaraz (%90,38). Gaitasuna zuten gutxi horien kasuan (%9,62) gainera, beste herri batzuetakoak ziren eta, Lizarrara joatean, ez zuten euskara gehiago erabili eta, beraz, ezta gaitasuna hurrengo belaunaldiari transmititu ere.

Hamarkada batzuk beranduago, hots, parte hartzaileen gurasoei dagokienez, etxean ez zuten euskararik jaso eta haurrak izatean ere ez zekiten euskararik. Horren ondorioz, noski, ezin izan zieten euskaraz egin gure parte hartzaileei. Hala ere, aipagarria da guraso hauen D ereduari dagokion hautua, honi esker euskaldundu baitira gaur egun gazteak diren beraien seme-alabak. Gainera, galdetegian jasotako datuek erakusten dute guraso batzuek(%23,08) haurrak izatean euskaltegian euskara ikasten hastea erabaki zutela.

Gazteen euskara gaitasunari dagokionez, 2. taulak erakusten du gazte gehienek gaitasuna mantendu dutela (gehienbat ulermenari dagokionean, %87k) baina beste batzuk galdu egin dutela (hurrenez hurren, idatzizko eta ahozko ekoizpenari dagokionean, %31-37k).

2. taula: gazteen euskara gaitasunaren bilakaera

	“(Nahikoa) ona zen DBHn eta mantendu egin dut”	“(Nahikoa) ona zen DBHn baina galdu egin dut”	“(Nahikoa) txarra zen DBHn baina hobetu egin dut”
Ahozko ekoizpena	%50	%37	%13
Ahozko ulermena	%87	%13	%0
Idatzizko ekoizpena	%63	%31	%6
Idatzizko ulermena	%87	%13	%0

Honela, aipagarria da gazteleraz guztiek zutela gaitasun ona DBHn zeudenean eta, euskarari dagokionez ere, oro har maila ona daukatela adierazi dutela. Euskarazko ahozko eta idatzizko ekoizpen eta ulermen maila dela eta, gazteek adierazi ziguten gaitasuna mantendu duten gehienek kasuan (%50) arlo guztietan mantendu dutela (ahozko ekoizpena, ahozko ulermena, idatzizko ekoizpena, idatzizko ulermena).

Zehatzago, gazte hauen ulermenari dagokionez, ahozkoan nahiz idatzizkoan maila bera daukatela esan daiteke, %87k (nahikoa) ona zela eta mantendu egin dutela eta %13k (nahikoa) ona zela baina galdu egin dutela adierazi baitute. Aldiz, ekoizpenari dagokionean, idatzizkoa ahozkoa baino hobea zutela eta hala jarraitzen duela adierazi ziguten. Gainera, goranzko joera dauka beraien idatzizko

ekoizpenak, ahozkoarekin alderatuta. Beraz, ahozkoan %37k beheranzko joera erakutsi dute eta idatzizkoan %31k.

4. Ondorioak

Lan honetan Lizarran azken hiru belaunaldietako euskararen bilakaerari heldu nahi izan zaio, haurrak ikastolan euskaldundu diren familietan euskara gaitasunaren eraldaketa ikertuz. Honela, aurreikuspenen arabera espero zen bezala, aitona-amona nahiz gurasoen belaunaldien kasuan, oro har, haurrak izateko garaian ez zekiten euskararik eta, zekiten gutxien kasuan, ez zieten gaitasun hori hurrengo belaunaldiei transmititu. Euskararen galera erakusten dute, beraz, datu hauek eta Fishmanen (1991) hizkuntza ordezkapen prozesuaren adibidetzat har litezke, belaunaldiz belaunaldiko transmisio galera dela eta. Aldiz, azken belaunaldiaren kasuan identifikatu diren euskararen gaitasun aitortuek hizkuntzaren biziberritze prozesua islatzen dute eta hor Lizarrako Ikastolaren ekarpena erabatekoa da. Beraz, esan behar da Kasaresen (2014) lanean Iruritan zein Iruñean erakusten dena Lizarrako kasuan ere ikusten dela, hots, ikastola euskararen berreskurapenaren eragilea dela. Datuek erakusten dute, gainera, ikastolan lortutako euskararen gaitasunek kasu askotan iraun egiten dutela unibertsitate garaian ere, euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenak derrigorrezko eskolaldia bukatu ondoren ere iraun dezakeen erakusgarri.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Aurrera begira, interesgarria litzateke gazte hauetatik ikasketak euskaraz egiten jarraitu dutenen gaur egungo euskara gaitasuna zehaztasunez aztertzea, esaterako, unibertsitatearen testuinguruak ikastola garaian paper bera jokatzeko ote duen ikusteko hizkuntza sozializazioan. Lan honetan aitortutako datuetatik jaso den informazioa sakontasun askoz handiagoz ikertu ahalko litzateke horrela. Gazte hauek haurrak zirela ELEBILAB taldeko lanetan egin zuten moduan, euskara eta gaztelania gaitasunen kontrastea egitea ere aukera bat izan daiteke. Halaber, testuinguru euskaldunagoetako adin bereko gazteen hizkuntza gaitasunekin ere kontrastea egin liteke.

Aurrera begirako beste ikerketa ildo bat parte hartzaile gazteagoetan arreta jartzea litzateke, eta lan honetan egin den moduan, aurreko belaunaldietan euskararen bilakaera nola gertatu diren ikertu. Horrela, Lizarrako testuinguruan euskararen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena nolakoa izaten ari den ikertzeko argazki osoa lortuko litzateke.

Erreferentzia bibliografikoak

- Aldasoro, E. (2001), La evolución de la enseñanza en euskera en Navarra: una perspectiva pedagógica. *Revista Internacional de los Estudios Vascos / Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria / Revue Internationale des Etudes Basques*, 46(2), 593-624.
- Almgren, M. eta Manterola, I.(2016), The development of narrative skills in learners of Basque as a second language, *Education Inquiry*, 7:1, DOI: 10.3402/edui.v7.27627
- Berria (2019). Euskarak eutsi, erdarek irabazi. Berria, 2019-02-20. Eskuragarri: https://www.berria.eus/paperekoa/1911/010/001/2019-02-20/euskarak_eutsi_erdarek_irabazi.htm [azken kontsulta: 2021-03-11]
- Dufur, A. (2012). Lizarra, euskararen biziberritzetik indarberritzera. Hiznet Hizkuntza Plangintza Gradu ondoko sakontze egitasmoa. UPV/EHU. Eskuragarri: <https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/Lizarra.pdf> [azken kontsulta: 2021-03-12]
- Erize, X. (2018). Nuevos consensos sociales plurales para el fomento de la lengua vasca en Navarra. *Príncipe de Viana*. Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Ezeizabarrena, M.J. (2012). The acquisition of the (in)consistent ergative marking in Basque: L1 and early L2. *Lingua* 122 (3), 303-317. I. Laka eta B. Fernández (eds). Special Issue accounting for ergativity.

- Fishman, J.A. (1991): *Reversing Language Shift*. Multilingual Matters, Clevedon.
- Kasares, P. (2014), *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Manterola, I., Idiazabal, I. eta Almgren, M. (2013). Basque L2 development in immersion school settings. *International Journal of Bilingualism*, 17(3), 375– 391.
- Manterola, I. (2019). A study of recipes written by Basque immersion students: any evidence for language revitalization? in N. Yigitoglu eta M. Reichelt (ed.), *L2 writing in non-English languages*. Multilingual Matters: Bristol.
- Manterola, I. eta Almgren, M. (2013). Las grandes líneas de progresión de los aprendizajes lingüísticos en la escolarización en euskera. In J. Dolz eta I. Idiazabal (eds.), *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. UPV/EHU: Bilbao. 217-240.
- Martinez de Luna, I.; Erize, X. eta Zalbide, M. (2016). "Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)". *BAT aldizkaria* 100-101 Soziolinguistika Klusterra. Andoain. Eskuragarri: http://www.soziolinguistika.eus/files/euskararen_bilakaera_soziolinguistikoa_eusk_1.pdf [azken kontsulta: 2021-03-11]
- Nafarroako Gobernua (2020). *Nafarroako datu Soziolinguistikoak, 2018*. Iruña: Nafarroako Gobernua, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua. Eskuragarri: https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/azterketa_soziolinguistikoa_2018.pdf [azken kontsulta: 2021-03-11]
- Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.
- Pardina, A. eta Manterola, I. (2021), ICML kongresuan aurkeztutako komunikazioa. "Euskara murgilketa ereduan ikasitako gazte nafarren muda linguistikoak: faktore laguntzaileak eta oztopatzaileak".
- Sagarduy, P. (2009). EAEko euskararen belaunez belauneko transmisioa: (2001eko Biztanleriaren Zentsuko datuak oinarri hartuta). *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (67), 103-116.